# EGA

ATARIKO PROBA

2003ko martxoaren 8a

*Azterketa-eredua:* **A**

## IRAKUR ITZAZU OHARRAK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 8 orrialde dituela eta ordena zuzenean daudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NA zenbakia.

| *NA zenbakia* | *Izena* |
|---|---|
| | |
| *1. deitura* | *2. deitura* |
| | |

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriko B atala.
6. Ariketa bakoitzean erantzun **egokiena** edo **zuzena** aukeratu eta erantzun-orrian kasuan kasuko koadrotxoa arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du.
8. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.
9. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzenduko da. Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

## ENTZUTEZKO ULERMENA

### LEHEN ATALA

**1. Zeri buruz hitz egiteko deitu dituzte bi gazte hauek?**

a) "Arrakasta"ri buruz hitz egiteko.
b) Gazteei buruz hitz egiteko.
c) Ikasketei buruz hitz egiteko.

**2. Nor da Iban Garate?**

a) Lehen aktorea zen eta orain ikaslea da.
b) Aurkezlea, aktorea eta ikaslea.
c) Lehen aktorea eta aurkezlea; orain, ikaslea.

**3. Sustrai Colinak etorkizunaz zer dio?**

a) Bertsolari izaten jarraitzeko asmoa du.
b) Abokatu izango dela uste du.
c) Ez du, oraingoz, ideia argirik.

**4. Ibanentzat, zer da arrakasta?**

a) Bere kasuan, neurtzeko zaila den zerbait.
b) Jendeak duen ustea besterik ez da.
c) Nekez lortu eta erraz desagertzen den zerbait.

**5. Sustrai Colinarentzat, zer da arrakasta?**

a) Arrakasta, bertsolaritzan, egunen kontua da.
b) Existitzen ez den zerbait.
c) Norberari atsegin zaionean pozik aritzea.

**6. Jende askoren ustez, telebistak ematen duen gauzarik hoberena zera da:**

a) Fama, arrakasta, ezaguna izateko ematen duen aukera.
b) Fama eta diru erraza lortzeko aukera.
c) Lankideak, adiskideak, lagunak egiteko ematen duen aukera.

### BIGARREN ATALA

**7. Komunikabideek kritikatzeko duten aukerari buruz, zer diote?**

a) Euren lana hori dela.
b) Euren iritziak ez duela beste gazte batzuenak baino gehiago balio.
c) Kritikak egiteko zaletasun handia dutela.

**8. Gazte hauek komunikabideetan sarri agertzen dira eta iritziak ematen dituzte. Atsegin dute?**

a) Ez, ez dute batere gustuko.
b) Alde batetik, bai; bestetik, ordea, ardura ere handiagoa da.
c) Nahiago lukete iritzirik ez eman.

**9. Anonimo izateaz, zer dio Iban Garatek?**

a) Ez dagoela eskaparatean egoteko prest.
b) Nahiago duela ezaguna izatea.
c) Lan atsegina duenez, eskaparatean agertzea beste erremediorik ez duela.

**10. Gazteak inork baino errazago ditu gauzak?**

a) Besteek baino lan gehiago eginez gero, lor daiteke zerbait.
b) Gazte ikasia bazara bai.
c) Ez da ezer oparitzen, baina errazagoa da.

**11. Gazte izateak zenbait aukera ematen ditu?**

a) Lehen pausoetan bai; gerora, ordea, ez.
b) Itxura ona duzun bitartean, bai.
c) Aukera hoberenak gazteentzat izan ohi dira gure gizartean.

### HIRUGARREN ATALA

**12. Gazteek pentsatzen ez dakitela esaten da. Zer uste dute?**

a) Ez dela egia; badakitela pentsatzen.
b) Horrela dela; unibertsitatearen utzikeriaren ondorio dela.
c) Egia dela; klase magistralek ez dutela batere laguntzen.

**13. Irakasleei buruz, zer diote?**

a) Saiatu, saiatzen direla baina gazteak oso ezberdinak direla.
b) Irakasle mota asko dagoela.
c) Gehienek apunteak irakurtzen dituztela eta kito.

**14. Diruari, lehen eta orain, balio bera ematen zaio?**

a) Gaur egun oso erraz lor daiteke.
b) Dirua, lehen eta orain, gazteen gogoko da.
c) Lehen ezberdina zen, oso nekez lortzen baitzen.

**15. Oraingo gazteak lehenagokoak baino buruarinagoak dira?**

a) Ez, inoiz baino zentzudunagoak dira.
b) Gazteak, lehen eta orain, antzekoak.
c) Bai, buruarinagoak dira gaur egungoak.

**16. Erantzukizunak hartzeko gai dira gaur egungo gazteak?**

a) Bai, gazteek badakite gauzak arduraz egiten.
b) Erantzukizuna kulturan eta bertsolaritzan hartzen dute.
c) Ez, nahiko axolagabeak dira.

**ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA**

**17. Norbaitek espero ez duguna esaten duenean, zein erantzun da egokiena?**

a) Bai, jauna!
b) Hara bestea!
c) Sekula ez!
d) Bejondeizula!

**18.** ***Ez nuke nahi zeu ere triste ..... nire gaixotasunagatik*****. Zein dago gaizki?**

a) jartzerik
b) jar zaitezen
c) jartzea
d) jar zaitezenik

**19. Nola esaten zaio hotzarekiko oso sentibera den pertsonari?**

a) Hotzikara.
b) Hozkirria.
c) Hozbera.
d) Laiotza.

**20.** ***Zuek Kepari zorrak barka ..... ematen dizuet diru hau.***

a) diezaiozuen
b) diezaiezuen
c) diezazkiozuen
d) diezazkiezuen

**21. Hauetako zein ez da ipuin baten hasiera?**

a) Behin batean...
b) Bazen behin...
c) Antzina ez dela...
d) Kontuak kontu...

**22.** ***Lagunak hitz eta pitz ari ziren*****. Bestela esanda:**

a) Hitz egin nahi baina ezin.
b) Berba eta berba.
c) Ahoa bete hortzekin.
d) Hitza eskatuz.

**23.** ***Liburua irakurri eta etxetik irten nintzen*****. Beste era batera:**

a) Liburua irakurritakoan etxetik irten nintzen.
b) Liburua irakurtzerakoan etxetik irten nintzen.
c) Liburua irakurriz gero etxetik irten nintzen.
d) Liburua irakurri ahala etxetik irten nintzen.

**24. Zein bikote dago gaizki?**

a) Arrautzak irabiatu.
b) Esnea xehatu.
c) Kafea eho.
d) Laranja zuritu.

**25.** ***Erakunde horrek laguntza eskaintzen du premiazkoa den tokietan, osasun laguntza...***

a) hala nola.
b) izan ere.
c) bereziki.
d) azkenik.

**26.** ***..... dago gure gazte sasoia!***

a) Lekutan
b) Gaztetan
c) Umetan
d) Antzina

**27.** ***Informatika irabazi ezineko erronka da, batez ere adin batetik gorako langileentzat*****. Beste era batera esanda:**

a) Informatikaren borroka ezin dute galdu halako goi maila duten langileek.
b) Langile zaharrek nekez joko diete erronka informatikak dakartzan irabaziei.
c) Adineko langileentzat ezinezkoa da irabazirik ateratzea informatikaren erabileratik.
d) Adinean sartuta dauden langileentzat batez ere, informatika erabiltzen ikastea oso zaila edo ia ezinezkoa da.

**28.** ***Aurreko batean, laban egin eta ..... erori nintzen.***

a) ahuspez
b) atzekoz aurrera
c) bizkar ematen
d) muturrez gora

**29.** ***Ez dizut onartuko oparia, non eta ez didazun zin egiten ez duzula lapurtu*****. Bestela esanda:** ***Ez dizut onartuko oparia...***

a) ez duzula lapurtu zin egin ezean.
b) ez duzula lapurtu zin egin arren.
c) ez duzula lapurtu zin eginda ere.
d) non lapurtu duzun esaten ez badidazu.

**30.** ***Egun batzuk baino ez dira falta oporretarako, eta langileok...***

a) sutan gaude.
b) esne mamitan gaude.
c) irrikan gaude.
d) ketan gaude.

**31. Zein dago ondo?**

a) Iztuetaren Ez Direlako Aketsak liburua plazaratuko du Alberdania Argitaletxeak Abenduaren 4rako.
b) Iztuetaren "Ez direlako aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak abenduaren 4rako.
c) Iztuetaren "Ez Direlako Aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak Abenduaren 4erako.
d) Iztuetaren "Ez direlako aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak abenduaren 4erako.

**32. Multzoetako batean ezaugarri <u>desberdineko</u> hitz bat dago. Zeinetan?**

a) Txerrikume, moxal, bildots, txahal.
b) Arte, lizar, haritz, pago.
c) Elkarrizketa, solasaldia, berriketa, olgeta.
d) Bildu, metatu, pilatu, batu.

**33. *Utikan* esan dizu irakasleak. Zer adierazi nahi izan dizu?**

a) Lanean hasteko.
b) Zutik jartzeko.
c) Berarengana joateko.
d) Alde egiteko.

**34. Zein da zuzena?**

a) Hemendik alde egitera behartu didate.
b) Gero geratzen gara eta esaten dizut.
c) Etortzen zarete gurekin igandeko kontzertura?
d) Ikaragarri lagundu diguzue!

**35. Euskara batuan zein dago zuzen idatzita?**

a) Aberastuez gero.
b) Aberastuz gero.
c) Honez gero.
d) Bostak ezgero.

**36. *Autobus geltokian zegoela, auto batek harrapatu du gure auzoko lagun bat*. Aukeratu erantzun egokiena.**

a) Zoritxar hori!
b) Halako zoritxarra!
c) Zoritxarra halakoa!
d) Hori zoritxarra!

**37. *Honek guztiak, talde naziekiko morboarekin batera, ikusmina sortzen du inozo askorengan*. Hau da:**

a) Honek eta talde nazien aldeko jarrerak ikusmina eragiten die inozo askori.
b) Honegatik eta talde naziek pizten duten morboagatik ikusmina sentitzen dute inozo askok.
c) Honi buruzko ikusmina dute inozo askok, talde nazietako morboaren ondorioz.
d) Honi eta talde naziek eragiten duten beldurrari bota behar zaio inozo askoren ikusminaren errua.

**38. *Ikasleak izango dira ekitaldiak antolatzeaz arduratuko...***

a) duenak.
b) dutenak.
c) direnak.
d) direla.

**39. Arroparen bat garbitzean txikiago edo laburrago geratzean esaten da:**

a) Urak hartu du.
b) Urtu egin da.
c) Eman egin du.
d) Melatu egin da.

**40. Zein <u>ez</u> da zuzena?**

a) Hizkuntz gaitasuna, ekonomi teoria.
b) Hizkuntz-gaitasuna, ekonomi-teoria.
c) Hizkuntza gaitasuna, ekonomia teoria.
d) Hizkuntza-gaitasuna, ekonomia-teoria.

**41. *Euskaldun <u>fededun</u>* dio esaerak. Zer esan nahi du azpimarratutako hitzak?**

a) Sinestuna.
b) Apaiza.
c) Gotzaina.
d) Mezamutila.

**42. Aukeratu jarraipen egokia. *Arrantzaleek izurdea Izaro inguruan ikusi zuten.***

a) Marrazoa baita ere han ikusi zuten.
b) Marrazoa ere bai han ikusi zuten.
c) Marrazoa ere han ikusi zuten.
d) Ere bai han ikusi zuten marrazoa.

**43. *Tripa zorriak* edukiz gero, zer duzu?**

a) Gosea.
b) Egarria.
c) Beherakoa.
d) Bihotzerrea.

**44.** ***Ikusten zaila denari ..... esaten zaio*. Hau da:**

a) ikusgaitza
b) ikustezina
c) ikusgarria
d) ikuskizuna

**45. Zein dago gaizki?**

a) Hobe duzue aurrera joaten utz nazazuen.
b) Saiatuko naiz zure guraria bete dadin.
c) Eskerrak bera konturatu ez delari!
d) Beldur naiz zerbait txarra gertatu ez ote zaion.

**46.** ***Hori da ume mizkina, hori!* Baliokidea aukeratu.**

a) Denetarik nahi du.
b) Ez da batere jatuna.
c) Beti negarrez ari da.
d) Berritsua da.

**47. Aukeratu zuzena. *Zer ordu da?***

a) Seiak eta erdiak.
b) Sei eta erdiak.
c) Seiak eta erdi.
d) Seirak eta erdi.

**48. Ezagun batek gurasoen osasunaz galdetu dizu. Zer erantzungo diozu?**

a) Firin-faran.
b) Ustekabean!
c) Hainbestean!
d) Hala-nola!

**49.** ***Urepelen omenaldia egiten ari ..... hil zen Xalbador bertsolaria.***

a) zizkiotelarik
b) zitzaizkiotelarik
c) ziotelarik
d) zitzaizkiolarik

**50.** ***Aurtengo aurrekontua iazkoa baino handixeagoa izan da*. Hurrengoetatik zein da esanahi berekoa?**

a) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean handia da.
b) Aurtengo aurrekontua iazkoaren parekoa izan da.
c) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean zertxobait handiagoa izan da.
d) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean oso handia izan da.

**51. Zer esango zenioke afaltzera datorrenari?**

a) Kontuz platerarekin, beroa dagoela!
b) Kontuz platerarekin, beroa dagoelako!
c) Kontuz platerarekin, beroa dago eta!
d) Kontuz platerarekin, bero dagoela!

**52. Euskara batuan, zein dago zuzen?**

a) Trenak lurpetik doazte inguru honetan.
b) Arazo guzti hoiek aipatu nizkion nagusiari.
c) Uste dut piskat haserre daudela gurekin.
d) Bostehun euroko motorra erosiko diote Aneri.

**53.** ***Bihotzeko arazoak omen zituen. Egun batean eztulaldi handi bat izan zuen eta...***

a) ziplo geratu zen bertan.
b) danba hasi zen bat-batean laguntza eske.
c) tipi-tapa lurrean etzan eta medikua eskatu zuen.
d) brast eskatu zuen apaiza.

**54.** ***Asteburuetan ez omen da mendira beste inora joaten*. Hau da:**

a) Diotenez, asteburuetan mendira baino ez da joaten.
b) Asteburuetan edonora joaten omen da.
c) Asteburuetan ez da joaten ez mendira, ez bestetara.
d) Asteburuetan mendira, behintzat, ez da joaten.

**55. Zein dago gaizki?**

a) Mirenek eta Pellok elkar agurtu dute.
b) Elkarri ez diote ezer barkatzen.
c) Miren eta Pello elkar joan dira.
d) Elkarrenganako izugarrizko gorrotoa dute.

**56.** ***Izuturik geunden*. Bestela esanda:**

a) Beldur airean geunden.
b) Beldurrarekin airean geunden.
c) Beldurraren airean geunden.
d) Beldurrak airean geunden.

**57. Euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?**

a) Gizon gaiso hura gaizki ezerita zegoen.
b) Jezarri zaitez haltzari horren gainean.
c) Aritz ihar horren hostoak laster jausiko dira.
d) Hostoak jausi zaizkion haritz lehor horren ondora hurbildu da.

**58. Hurrengoetako bat gaizki dago. Zein da?**

a) Harrobiko jokalariz osatutako taldea egin nahi du zuzendaritzak.
b) Mutil banarekin irten ziren tabernatik Aloña eta Eider.
c) Bost urtez Parisen izan naiz.
d) Irailan hasiko gara ikastolan.

**59. Zein da hasiera egokia? ..., *ibiltzeko ere gai ez dela dago.***

a) Argalaren argalaz
b) Ekin eta ekin
c) Lodiz lodi
d) Zurtz eginda

**60. Nola irakurtzen da *2 x 3 = 6*?**

a) Bi hirura berdin sei.
b) Bi bider hiru berdin sei.
c) Bi erro hiru berdin sei.
d) Bi hiruturik berdin sei.

**61. Hurrengo hitz bikoteetatik, zein dago zuzen?**

a) Ur lerdenak.
b) Gazte arreak.
c) Aulki hutsalak.
d) Itsaso harroa.

**62. *Nik neuk ez dakit, baina hemengo ..... erantzun ahalko dizu*. Zein <u>ez</u> da zuzena?**

a) edozeinek
b) honek
c) inork
d) besteren batek

**63. *Gauden denok alai*. Zer esan nahi du?**

a) Egon gaitezen denok alai.
b) Denok alai gaude.
c) Denok geunden alai.
d) Alai gauden guztiok.

**64. *Ez omen du koplatan ibiltzeko gogorik*. Bestela esanda:**

a) Ez omen du kanturako gogorik.
b) Ez du alferkerian ibili nahi, antza.
c) Ez ei du txikikeriatan ibiltzeko gogorik.
d) Ez bide du abesteko gogorik.

**65. Euskara batuan zein da zuzena? *Garaipena geuk lortu dugu, asko saiatu...***

a) bait gara.
b) baigara.
c) baikara.
d) baitgara.

**66. *Berriro harrapatu zaituzte autoak lapurtzen? Bada,...***

a) hori txantxa!
b) zorionekoa zu!
c) hori duk eta!
d) zureak egin du!

**67. *Zaletu guztiok beste ametsik ez dugu. Gure taldeak hurrengo txapelketa...***

a) irabaziko bide du!
b) irabaziko ahal du!
c) irabaziko omen du!
d) irabaziko ohi du!

**68. *Etxea kiskalita geratu da, baina barrukoak onik atera dituzte.***

a) Esker onekoak!
b) Jaunak lagun ditzala!
c) Gaitz erdi!
d) Horra hor!

**69. *Norbere gauzarik minenez trufatzen jakiteak abagune paregabea eskaintzen du besteenez trufatzeko*. Bestela esanda:**

a) Mintzen gaituztenean besteei iseka egiteko joera dugu.
b) Bere buruari iseka egiten dakienak aukera ederra du besteei iseka egiteko.
c) Minez trufatzen dakiena besteen saminez ere trufatuko da.
d) Min ematen digutenean besteei erasotzeko aukera ederra dugu.

**70. *Etxea hankaz gora ikusi zuenean, oihuka eta biraoka hasi zen,...***

a) bere onetik aterata.
b) bere onenak emanda.
c) begiak lauso.
d) deabrukeriak eginda.

**71. *Horko etorkin horiek dirua ..... lana nahi dute.***

a) barik
b) ezik
c) ordez
d) hainbeste

**72. Zein da zuzena euskara batuan?**

a) Oro har, esan daiteke denek hitz egin dutela gaizki.
b) Orohar, esan daiteke denek hitz egin dutela gaizki.
c) Oro har, esan daiteke denek hitzegin dutela gaizki.
d) Orohar, esan daiteke denek hitzegin dutela gaizki.

**73. *Jainkoarren!* Zertarako erabiliko zenuke esamolde hori?**

a) Harridura adierazteko.
b) Agurtzeko.
c) Egindakoagatik zoriontzeko.
d) Aurkezpena egiteko.

**74.** ***Eragozpen horiek ....., aurrera egitea erabaki dute.***

a) gorabehera
b) aldera
c) kontuan izaten
d) gaindi

**75.** ***Ezetz jakin zein egunetan eta zer ordutan den aurkezpena?***

a) Baietz jakin! Uztailaren 10ean, goizeko 9:20an.
b) Jakingo ez dut, ba! Uztailak 10, goizeko 9:20tan.
c) Bai dakidala, motel! Uztailan 10ean, goizeko 9:20etan.
d) Edonork daki dela uztailak 10eko 9:20ean.

**76.** ***Haiek ez dute gure antzik*. Beste era batera esanda:**

a) Gurekin desberdinak dira haiek.
b) Guretatik desberdinak dira haiek.
c) Gu ez bezalakoak dira haiek.
d) Guregatik desberdinak dira.

**77.** ***Gogotik bota du euria gaur, baina iluntze partean ..... eta ibilaldi ederra egin dugu.***

a) atertu dio
b) ateri da
c) atertu du
d) ateri egin da

**78. Zein dago zuzen euskara batuan?**

a) Artzai batzuk ardi usaia izaten dute.
b) Artzain batzuek ardi usaia izaten dute.
c) Artzain batzuek ardi usaina izaten dute.
d) Artzai batzuk ardi usaina izaten dute.

**79. Haur txikitxo bat bere amari *mama* eskean ari bazaio:**

a) Gose da.
b) Egarri da.
c) Logura da.
d) Hotz da.

**80. Zein da zuzena?**

a) Haiek etorri zirenerako gu prest ginen.
b) Zerbait egin beharko dugu arazo horiek lehen eta azkarren desager daitezen.
c) Ez dakigu nola biziko gara hemendik bi urte barru.
d) Bapo janez gero, bazkaria ondoren siesta egitea da onena.

**81. Ondoko multzoetako batean bada izen bat <u>tokiz kanpo</u>. Zein multzotan?**

a) Mihi-arraina, zapoa, aingira.
b) Indaba, dilista, ilarra.
c) Idikia, txerrikia, adabakia.
d) Lukainka, odolostea, buzkantza.

**82.** ***Inork ez zuen tutik esan, eta nire galdera ..... gelditu zen.***

a) haizean
b) bere hartan
c) isil-isilean
d) ezkutuan

**83. Zein <u>ez</u> da besteen baliokidea?**

a) Etorri da?
b) Etorri al da?
c) Etorri dea?
d) Etorri ote da?

**84. Zer da *gernua*?**

a) Txiza.
b) Kemena.
c) Armiarmen sarea.
d) Ikatza.

**85.** ***Maisutza bere gain hartu dutenez gero, gidaritza dagokie, ez artaldearen atzetik ibiltzea.* Bestela esanda:**

a) Maisuak direnez, artaldearen atzetik ibili behar dute.
b) Maisutza eurek hartu dutenez, eurek izan behar dute gidari.
c) Artaldeari ez dagokio gidaritza, buruzagitza baizik.
d) Gidaritzak gain hartu dienez gero, ez dute artaldearen aurretik ibili behar.

**86.** ***Goraintziak amari!***

a) Bai, primeran dago!
b) Ez horregatik!
c) Bai, zure partetik!
d) Baita zuri ere!

**87.** ***Ez pentsa ikasle guztiak berdinak direnik, ..... alde handia dago!***

a) ikasleetatik ikasleetara
b) ikaslearengandik ikaslearengana
c) batetik bestera
d) ikasleengandik ikasleengana

**88.** ***Tontoa izan behar aukera eder horri...* Esaldia bukatu.**

a) gogor ekiteko.
b) bizkar emateko.
c) baietz esateko.
d) aurre egiteko.

**89. Nola idatzi behar da 50?**

a) Berrogetamar.
b) Berrogeitamar.
c) Berrogeita hamar.
d) Berrogei eta hamar.

**90.** ***Bada, zaharrak berri*. Zein galderaren erantzuna da?**

a) Zer berri?
b) Zenbat urte dituzu?
c) Zelan bizi zara?
d) Ezer berririk erosi al duzu aspaldion?

**91.** ***..... lasai, ez da berandu eta!***

a) Ibil gaitezen
b) Goaz
c) Gabiltza
d) Joaten gara

**92.** ***Bungeren ustez, nabari da, gizakiak ez dira bereizi behar ez arrazagatik, ez erlijioagatik, ez beste edozergatik.* Hots:**

a) Bungeren arabera, zalantzazkoa da gizakiak arrazaren, erlijioaren edo beste zerbaiten arabera baztertu behar ote diren.
b) Bungek aholkatzen du gizakien artean bazterketarik ez egiteko, ez arrazagatik, edo erlijioagatik eta abar.
c) Bungek adierazten du ez arrazak, ez erlijioak, ez beste ezerk ez dituela gizakiak bereizi behar.
d) Baliteke Bungek ez onartzea gizakien arteko inolako bereizketarik.

**93. Sinonimo bikote hauetatik bat <u>gaizki</u> dago. Zein da?**

a) Otu - bururatu
b) Lapurtu - ebatsi
c) ikuzi - garbitu
d) Ihardetsi - galdetu

**94. Zein da zuzena?**

a) Txokolatezko gozokiei pattarra gehituz gero, anisa gehituta baino hobetoago daude.
b) Tolosako abesbatza da ondoen abestu duena.
c) Enpresa horretako lan baldintzak inoiz baino onagoak dira.
d) Coppiren garaiari alderatuta, egungo txirrindulariek baldintza hobeagoak dituzte.

**95.** ***Bereak barik inorenak diren testuak ere ageri dira nobelan, multzo polita gainera*. Hau da:**

a) Nobelan tarteka dauden testu batzuk politak dira.
b) Idazleak asmatutako testuak baino ez dira ageri nobelan.
c) Besteren lanen batzuk ere badira nobelan.
d) Berak eta bestelako idazle batzuek hartu dute parte.

**96.** ***Laugarren kale neurketan euskararen erabilerak goiti egin badu ere, igoera apalduz doa.* Beraz:**

a) Erritmoa moteldu egin da.
b) Erabilera gero eta altuagoa da.
c) Hiztun kopuruak behera egin du.
d) Neurketa kalekoa baino ez da izan.

**97.** ***Eta, esan eta egin! Larru gorritan jarri zen kale erdian!* Zein da jarraipen egokia?**

a) Zoroa halakoa!
b) Ezetz izan!
c) Baietz!
d) Eskerrak!

**98. Duela gutxi gertatutako zerbait azaltzen hasteko:**

a) Beste egunean…
b) Aurreko batean…
c) Beste egun batean…
d) Biharamunean….

**99.** ***Goizaldeko ordu bata izan arren, argi asko daude piztuta ..... etxeetan.***

a) honezkero
b) oraingoz
c) dagoeneko
d) oraindik

**100.** ***Badu horrek ateraldi bakoitzik!* Bestela esanda:**

a) Mendizale amorratua da.
b) Oso astuna da.
c) Oso xelebrea da.
d) Berritsua da, sano.

**OHARRA:**

**Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.**

**ERANTZUNAK**

**2003/03/08**

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | b | 21 | d | 41 | a | 61 | d | 81 | c |
| 2 | b | 22 | b | 42 | c | 62 | c | 82 | b |
| 3 | c | 23 | a | 43 | a | 63 | a | 83 | d |
| 4 | a | 24 | b | 44 | a | 64 | c | 84 | a |
| 5 | c | 25 | c | 45 | c | 65 | c | 85 | b |
| 6 | b | 26 | a | 46 | b | 66 | d | 86 | c |
| 7 | b | 27 | d | 47 | b | 67 | b | 87 | c |
| 8 | b | 28 | a | 48 | c | 68 | c | 88 | b |
| 9 | c | 29 | a | 49 | d | 69 | b | 89 | c |
| 10 | a | 30 | c | 50 | c | 70 | a | 90 | a |
| 11 | a | 31 | b | 51 | c | 71 | a | 91 | a |
| 12 | a | 32 | c | 52 | d | 72 | a | 92 | c |
| 13 | b | 33 | d | 53 | a | 73 | a | 93 | d |
| 14 | c | 34 | d | 54 | a | 74 | a | 94 | b |
| 15 | b | 35 | b | 55 | c | 75 | a | 95 | c |
| 16 | a | 36 | d | 56 | d | 76 | c | 96 | a |
| 17 | b | 37 | b | 57 | d | 77 | c | 97 | a |
| 18 | d | 38 | c | 58 | d | 78 | c | 98 | b |
| 19 | c | 39 | a | 59 | a | 79 | b | 99 | d |
| 20 | c | 40 | b | 60 | b | 80 | a | 100 | c |